

### 4.3. Azken xedea > Antzerkia



#### Helburuak

- Talde-lana bultzatzea.
- Ikasitako egitura, nozio... guztiak praktikara eramatea.
- Ipuin bat idaztea.
- Ipuin batetik abiatuta antzerki bat egitea.

#### Prozedura

- Lehenik eta behin, hezitzaileak "Txano Gorritxo: antzerkia" prestatu. Eszenatoki bat, hainbat paisaia eta bost pertsonaia dauzka.
- Umeei erakutsi eta ipuin baten bitartez, antzerki bat sortu daitekeela esan.
- Pertsonaiak erakutsi eta ipuin guztiak pertsonaiak behar dituztela esan. Gaiaren lanketan "Nolakoak dira?" fitxa egin dutenez, bertatik tira egin pertsonaien deskripzioa denen artean egiteko.
- Paisaietako bat aukeratu eta denen artean deskribatu: zer da, non dago, nolako da, zer dauka...
- Gero hezitzaileak aurkezpeneko Txano Gorritxo ipuinarekin antzerkitxo antzeztu.
- Behin eginbeharrekoaren eredia jaso dutenean, hiru talde egin. Kontuan hartu ipuin bakoitzak zenbat pertsonaia dauzkan taldeak egiterako orduan, narratzailea ere kontuan hartu.
- Talde bakoitzari banatu:
  - "Antzerkia" dokumentua.
  - Ipuinetako baten argumentua: Hiru txerrikumeak, Hansel eta Gretel edo Erbia eta dortoka.
  - Banatu zaien argumentuarekin lotura daukan eszenatokia.
- Umeek "antzerkia" dokumentuko pausuei jarraituz, ipuina sortu. Ezinbestekoa da ipuinak kontaketa eta elkarrizketak nahastea.
- Pausu guztiak egin ostean, hezitzaileak zuzenketak egin eta umeekin komentatu.
- Talde bakoitzak antzerkia gelako beste guztien aurrean antzeztu.